

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

HIRI ETA LANDA GARAPEN ARLOA

Hiri Garapenaren Zerbitzua

Hasierako onespena ematea Laudioko zonakatze akustikoaren mapari eta zarata-mapari

Denon ezaguerarako jakinarazten da jarraian azaltzen dela udal honetako alkate-udalburuaren 2022ko irailaren 23ko dekretu bidez 1638 zenbakiko ebazpena hartu dela, zeinaren xedapen-zatia honako hau baita:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Centro de Acústica Aplicada SL(AAC) aholkularitza-enpresak Laudio udalerrian egindako zonakatze akustikoaren mapari eta zarata-mapari, eta horrekin lotutako dokumentazioari.

Bigarrena. Jendaurrean jartzea dokumentazio hori hilabeteko epean, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzen denetik hasita, edozein pertsona fisiko edo juridikok dokumentazioa aztertu eta alegazioak epe horretan aurkez ditzan.

Hirugarrena. Jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, eta egindako alegazioei erantzun ondoren, udalbatza honek behin betiko onespeneri buruzko ebazpena emango du, eta onartu beharreko dokumentuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara eta Arabako Foru Aldundira bidaliko ditu."

Espedientea kontsultatu ahal izango da astelehenetik ostiralera, Herriko plaza, z/g, 3. solairuko Hiri eta landa garapen arloko bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara.

Laudio, 2022ko irailaren 27a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE